



Núria Solé Bardalet

Arxiu del Centre de Coneixement i Recerca
Fundació Museu Picasso, Bartzelona

Núria Solé Bardalet (Calafell, 1976). Artearen Historiako eta Italiar Filologiako lizentziaduna da (Bartzelonako Unibertsitatea). 2020az geroztik artxibozain gisa lanean ari da Bartzelonako Picasso Museoko Ezagutza eta Ikerketa Zentroan.

2008tik 2020ra, Antoni Tàpies Fundazioaren Artxibo Sailaren arduraduna izan zen; bertan ari zela, Laurence Rasselek zuzendutako Arte Konbinatorioen artxiboaren proiektua sortzen parte hartu zuen. Urte haietan, Performig the Museum eta 4Cs: From Conflict to Conviviality through Creativity and Culture europar proiektuak ere koordinatu zituen. Antoni Tàpies Fundazioaren Artxiboaren bidez, Oriol Fontdevila kuradore zela, Kode irekiko prototipoak hezkuntza-proiektua sustatu eta diseinatu zuen, gogoetarako ardatz modura harturik arte garaikideari loturiko praktika artxibistikoa.

2022an, Brigitte Baer. Picasso eta grabatuak erakusketa komisariatu zuen, Sílvia Domènech eta Emmanuel Guigon lankide zituela.

Artxibatzea-erakustea: Bartzelonako Picasso Museoaren artxibo historikoaren digitalizazioa

Zibilizazioen maila teknologikoak lotura estua du kultura-ondarearen eta artxiboaren sorrerarekin eta antolaketarekin. Eta funtsezko ideia da dokumentuak desmaterializatzea hain garrantzizkoa zergatik den ulertzeko. Gaur egungo gizartea testuinguru oso digitalizatu eta berritzailean bizi da, eta segurtasun-sistema aurreratuak behar ditu, baita informazioa gero eta modu bizkorragoan, dinamikoagoan, eskuragarriagoan eta ongi erkatuta hedatzea ere. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da artxibozainak eraldaketa digitaleko prozesuan betetzen duen zereginaren garrantzia, zeregin nagusiki teknikoa baita eta kuradoretza-lana eskatze duelako. Ideia hori jarraituz, Bartzelonako Picasso Museoan lortutako esperientzia abiapuntu hartuta, hitzaldi honetan gonbita egingo zaigu pentsatzera arte-artxiboak, digitalizazio prozesuetan murgiltzen direnean, erakusgai jarritako artxiboak direla eta, aldi berean, artxiboaren praktikak artearen kuradoretza-estrategietatik hurbil jardun behar duela.